

LEIRE BILBAO
XXXV. LIZARDI SARIAREN IRABAZLEA

Apirilaren 25ean jaso zuen XXXV. Lizardi Saria Leire Bilbaok, *Karmel* aldizkariko idazleak, Zarautz-eko Sanz Enea liburutegian egin zen sari banaketan. 2016ko deialdiko Lizardi Saria irabaztera bideratu duen lana: “*Pikondoaren balada*” ipuina.

Yolanda Arrieta, Alexander Gurrutxaga, Miren Agur Meabe eta Nerea Arrienek osatutako epaimahaiak nabarmendu duenez, “gaztetxoentzako literatura izanda ere, helduentzako ere baliagarria da ipuin eder hau”.

Leire Bilbaoren hitzetan, *Pikondoaren balada* ipuinak bizi filosofia bat ematen du ezagutzera: «familia istorio batetik, istorio unibertsal bat kontatzen du».

Lukas ez dela pikondotik jaitsiko, hori da kontakizunaren hasiera. Lehenbiziko kapitulua bi esaldi dira: “Ez zela jaitsiko esan zuen. Ez zela jaitsiko pikondotik”. Eta esaldi pare horrek Lukasen bizitzaren filosofia jasotzen du. Lukasek une batean erabakitzen du bere etxe ondoan dagoen pikondora igoko dela eta ez dela bertatik jaitsiko. Nahiz eta gerra etorri, nahiz eta gerran parte hartzeko deitua izan, nahiz eta bere anaia gerrara joan, berak esaten du ezetz, bera ez dela jaitsiko pikondotik. Ez du bere burua desertore gisa definitzen; badaki ez

dela desertorea, bakezalea baizik. Hortik abiatuta, bizitzaren gaineko filosofia bat da pikondoarena: lurrari lotuta dago baina, era berean, begiak hodeiertzera ditu jarrita, naturara, txoriei... Bere ikuspegi propioa du Lukasek.



“Pikondoaren balada” ipuina Martinak kontatzen digu, Lukasek iñobak. Eta iñobaren ahotsa da familiaren istorioa kontatzen duena, bere osaba aitzakiatzat hartuta. Hain zuzen ere, familia bizi den etxea Piku Enea deitzen da, pikuaren ondoan eraiki

zuelako Lukasen aitak. Etxea amaitzen duen egunean bertan, azken teila jartzen duenean, teilatutik erori eta hil egiten da Martinaren aitona Martin. Eta egun horretan bertan jaioko da Lukas, pikondopean. Martin hiltzerakoan, ama bi semerekin geratuko da, oso ezberdinak diren bi semerekin. Dikotomia bat dago bien artean: nagusia dago lurrari oso lotua, arrazionala da, gerrara joaten da bereak defendatzera...Lukas, berriz, gehiago da bere filosofiari eusten diona.

Lukasek balio handia ematen dio ahozkoatasunari, tradizioari, filosofiari zein literaturari, eta hori baliatu du Leire Bilbaok ipuinean kantu eta kontu zaharrak sartzeko. Hain zuzen ere, Lukasek bere ilobari euskal balada zaharrak transmitituko dizkio. Zentzu horretan, tradizioaren eta transmisioaren lekua ere bihurtuko da pikondoa.

Euskal literaturaren balada, esaera zahar, kantu eta atsotitez maiteminduta, Leire Bilbaok, batez ere, Xabier Amurizak Bizkaiako bertsogintzari buruz egindako bilduman jaso zituen koplak eta baladak izendunak eta izen bakoak izan ditu lehengai. Izen gabeak asko euskal tradiziotik eta ahozkoatasunetik datoz, eta haiek gogora ekarri nahi izan ditu idazleak.

Epaimahaiaren iritziz, “ipuinak modu sotilean uztartzen dituzte errealitatea eta fantasia, naturara itzultzeak garrantzia hartzen du eta osabaren metamorfosia (motibo klasikoa) gerraren aurkako aldarri moderno bihurtzen da. Estilo zaindu eta dotorean idatzitako ipuina da, ahozkoaren eragin aipagarriarekin (ahozko tradizioari egindako omenaldiak barne)”.

Zorionak Leire!

Ana Urkiza